

azpeitianzer?

udal aldizkaria 153. zenbakia
Denon artean



azpeitia



denon artean



Danborradako taldeak, udal ordezkariak eta Txokoloren familia San Sebastian jaiei aurkezpenean.

Berrikuntzekin dator aurtengo San Sebastian festa

Txokoloren “Goizeko izarra” abesti berria joko dute danbor-joleek

danbor, barrika, atabal eta jantziak prest daude erabiliak izateko. 1.300 danbor-joleek beteko dituzte larunbat gauean Azpeitiko kaleak eta musikaz, jendez, kolorez eta doinuaz jantzirik Alde Zaharra. Udaleko Festa sailak ekitaldiz beteriko egitaraua prestatu du eta beraz, asteburuan ez da aspertzeko betarik izango.

“Hemen ditugu sansebastianak. Udal honek bultzatzen duen parte-hartzearen festak dira hauek. Garai zailak bizi ditugun honetan, aurrekontuari begiratu diogu, bera murriztuz, baina festa bera mantendu egingo da herritarren laguntzarekin”, agertu du Festa batzordeburua den Mikel Ibarzabalek.

Aurten gainera, berrikuntza batekin dator festa. Izan ere, Joxe Mari Gurrutxaga Txokoloren ‘Goizeko izarra’ abestia lehenbizikoz joko da. Unai Frantzesena

Udal musika bandako zuzendariak egin ditu moldaketak: “Elkarteekin egindako bileretan abesti berriei galdetu zuten, danbor-joleek pieza erraza eta alaia nahi zuten. Kanta honekin gogoratu nintzen, goizeko dianoan jo izan da. Danbor eta barrikentzat moldatu dut eta ondo aterako da”, azaldu du Frantzesenak. ‘Goizeko izarra’ abestiaren estreinaldiarekin batera, ‘Mandioko polka’ kantak 25 urte beteko ditu Azpeitiko Danborradan.

Urtero bezala, 22:15ean hasiko da helduen Danborrada eta kalejira egin ondoren, plazan bilduko dira banderaren igoera ikusteko. Eneko Etxeberria alkatearekin batera Berria eta Egunkariako arduradunak izango dira. Aurten 10 urte beteko dira Euskaldunon Egunkaria itxi zenetik. Egunkaria itxi ondoren Berria argitaratzea ekin zitzaion, biak ere euskararen aldeko lan eskerga egin dute; horregatik, Azpeitiko Udalak

Egunkaria eta Berriako arduradunak San Sebastian bezperan udaletxeko balkoira gonbidatu ditu omenaldi gisa.

Urtarrilaren 20an, berriz, haurren txanda izango da. Ikastetxe zein eskola desberdinetako 700 gaztetxoek Danborrada 12:30ean hasiko da eta desfilea ixten, karroza joango da. “Aurten Joan de Antxieta eskultorea hil zela 425 urte betetzen dira eta azken ukituak besterik ez dira faltan karroza amaitzeko. Oso ederra ari da gelditzen”, aurreratu du Ibarzabalek.

Azken berrikuntza bandera jaistearren ekitaldian iritsiko da. Hurrengo eguna jai dela kontutan hartuta, talde guztiei bandera jaitsieran parte hartzeko gonbitea egin zaie. Horrela, normalean 6 izaten dira baina aurten, talde gehiagok hartuko dute parte”, amaitu du Ibarzabalek.



san sebastian festa egitaraua 2013



19, LARUNBATA SAN SEBASTIAN BEZPERA

22:15ean, HELDUEN DANBORRADA

24:00etan Talde guztiak plazan elkartuta, danborradako doinuak joko dituzte.

20, IGANDEA, SAN SEBASTIAN EGUNA

09:00tan, Txistularien eta Musika Eskolaren GOIZ-ERESIA

09:30ean, ARDOZALEAK eta GURE AMETSA taldeek, Udal Musika Bandarekin batera eta Musika Eskolako Txilibituak kalejira egingo dute.

10:15ean, KORPORAZIOA

10:30ean, PROZESIOA

10:45ean, MEZA NAGUSIA OLAZKO AMARI ZUZENDUA Parrokiko eta Barrenetxeako abesbatzekin.

12:00etan, SOKAMUTURRA Plazan

12:30ean, HAURREN DANBORRADA karroza ikusgarriarekin. Aurtengo karrozaren gaia, "JOAN ANTXIETA, IRUDIGILEA"

Karrozaren egileak: Goreti eta Leire Iriarte Nazabal azpeitiarrak.

Aholkularitza: IMANOL ELIAS

16:30ean, SOKAMUTURRA

18:15etan, IZARRAITZ PILOTALEKUAN pilota partida bikainak. ASPE

- Eguna: urtarrilaren 20a.
- Tokia: Izarraitz pilotalekua.
- Ordua: 18:15ean

Partiduak:

1. partida:
OLAZABAL-ARRUTI // TAINTA – LADIS GALARZA

2. partida:
RETEGII II – PEÑAGARIKANO // IDOATE - LARRINAGA

22:45ean, BANDERAREN JAITSIERA.

21, ASTELEHENA

12:00etan, ZEZEN TXIKIAK eta PONIAK plazan

16:00etatik 20:00etara, HAUR PARKEAK Olazko Amaren Plaza

16:30ean, SOKAMUTURRA

erreportajea

azpeitia denon artean

Intelligentziaz gobernatu behar da herritarrekin, Udalaren eraginkortasuna biderkatuz, eta herritarrentzat

Krisia aukera ere bada, errazena diruarekin eraikinak egitea da

azpeitiko Udalak, 2012an onartu zituen lehen aldiz aurrekontuak herritarren parte hartzearekin. Udala herritarren zerbitzura jartzeko bidean, egitasmo arrakastatsua bilakatu zen zalantzarik gabe “Denon artean” prozesua. Honela, 700 azpeitiar inguruk parte hartu zuten, eta herritarren beharrak asetze bidean proposamen ugari jaso ziren. Modu honetan zehaztu zen Udalarentzat urte osorako bide orria izango zena. Eta proiektu zehatzak lantzeko diruak aurreikusiz onartu zituen Udalbatzak 2012ko aurrekontuak.

“Orain dirurik gabe gobernatu behar da, edukiaz landuz eraikinetako”

“Aurrekontu parte-hartzaileen egitasmoa, une batean hasi eta amaitutako parte-hartze prozesua baino, Udalaren kudeaketa berri baterako lehen oinarria izan dela esan daiteke. 2012ko batzarretan, auzo nahiz arlo desberdinetan zeuden beharrak jasotzearekin batera, eremu desberdinetako protagonistekin lankidetzarako zubiak eraiki ziren. Honela, eta oraindik hobetzeko badago ere, lehen ha-

rreman horiek sakondu eta iraunkortzen joan dira urtean zehar”, agertu du Eneko Etxeberría alkateak.

Parte-hartze ordenantzaren bitartez, herritarren partaidetzarako guneak zehaztu eta arautu dira. Eta ordenantzan jasotzen diren atalak sakondu ahala, herriarentzat garrantzizkoak diren hainbat eremutan elkarlanerako eremu berriak sortzen joan dira. Honela, auzoetako egunerokoari lotutako proiektuak bizilagunen ekarpenak bilduz garatu dira. Arlo desberdinetako mahaien bidez, dagokion eremuko egitasmoak lantzeko harreman iraunkorra izan du Udalak herriko taldeekin.



2013 urteko parte-hartze prozesuak jarraituko dituen pausoak honako hauek dira

AZPEITIA DENON ARTEAN 2013


Krisi ekonomikoak astindu gaituen honetan, Azpeitiko herriak garai zailak bizi ditu. Egoera honetatik ateratzeko, ezinbestekoa da guztiok batera aritzea. Udala, eragile ekonomikoak, taldeak, herritarrak... Egoeraren azterketa adostu eta norabide egokian indar eginez, Azpeitia denon artean eraiki behar dugu.

Bizi dugun egoeraz jabetuta, Azpeitiko Udalak plan estrategikoa martxan ipintzeko erabakia hartu du. Honela, sentsibiltate eta ikuspegi desberdinak bildu eta etorkizuneko Azpeitia marrazteko tresna baliatu nahi da. Gure herrian bizi dugun egoeraren azterketa zehatza egin eta aurrera begira ditugun erronkei norabidea jarriko dien ipar orratza.

“Diru publikoa arduraz kudeatu eta Udala norabide egokian kudeatzeko ezinbestekoa da herritarren parte-hartzea bermatzea”

Gauzak honela, 2013ko aurrekontuen egitasmoak garrantzia berezia hartzen du. Alde batetik, parte hartze prozesuan jasotzen diren ekarpenak plan estrategikoa osatzeko erabiliko dira. Bestetik, 2012an hasitako bidean sakondu eta urte berrirako bide orria zehaztea izango dira aipatu prozesuaren helburua.

Diru publikoa arduraz kudeatu eta udala norabide egokian kudeatzeko ezinbestekoa da herritarren parte hartzea bermatzea. Horregatik, 2013ko aurrekontu parte hartzaileen prozesuak, udaleko batzordeetan alderdi politikoen artean emango diren eztabaidetatik haratago, herritarren parte hartzea bermatzeko tresna desberdinak eskainiko ditu. Auzo eta arlo desberdinei zuzendutako batzarrak izango dira gune nagusia. Baina batzarrez gain, galdetegiak erantzunez edota *azpeitia.net* ataria erabiliz parte hartu ahal izango da.



OGASUNA



2012an egindako optimizazio planari esker, zerbitzu publikoak indartu eta Azpeitirako beharrezko ziren proiektuak aurrera atera dira

Grafikoak argi adierazten duenez, udal aurrekontuaren diru sarrerek jaitsiera nabarmena izan dute azken urteetan. Krisiaren eragina udalera ere iritsi da. Egoera honetan, zerbitzu publikoak mantendu eta hobetzeko konpromisoa hartu zuen Azpeitiko udalak 2012ko Azpeitia Denon Artean prozesuan. Diru gutxiago izanda eta zerbitzu publikoak mantentzeko erabakia hartuta, optimizazio plan bat egin da. Udalaren kudeaketarako hainbat neurri hartu dira, jarraian esanguratsuenak:

- Talde politikoek eta zinegotziek, udalbatzan eta batzordeetan parte hartzeagatik jasotzen zituzten ordainsariak %40 jaitsi ziren. Ondorioz, 2010eko urtearekin alderatuz 56.000 euro aurreztu dira 2012an.
- Ordu extrak. Udaleko langileen ordu extrak murrizteko erabakia hartu zuen. Honela, 100.000 euro inguru aurreztu dira.
- Udaltzaingoa. Gure tamainako herriekin konparatuz, udaltzain kopuru handia zuen Azpeitiak. Horregatik, erabaki zaila izanik ere, udaltzain kopurua gehiegizkoa

zelakoan, 21etik 18ra murriztu da. Funtzionamendua egokitu eta zerbitzuak mantentzeko apustua eginez. 161.000 euro aurreztu dira.

- Euskara patronatuak, 2011an 654.000euroko aurrekontua izan zuen. Krisiaren ondorioz, beste instituzioetatik jasotzen ziren diru-laguntzak murrizten joan diren neurrian, udalarentzat gehiegizko kostua zuen tresna bilakatu da. Horregatik, bere funtzioak egokitu eta berregituratu egin da.
- Udalak azpikontratatzan dituen zerbitzuen inguruko errepaso egin eta kontratuak negoziatu dira. Ahalik eta kudeaketa eraginkorrena eman eta dirua aurreztu asmoz.
- Software librea jarri da martxan udalean. Eta ondorioz, lizentzietarako 40.000 euro aurreztu dira.
- Egoera ekonomikoa konplikatu izanik ere, udalak gehiago ez zorpetu eta aurretik zuen zorra arintzeko konpromisoa hartu zuen. Alde batetik, Udalak bankuekin zuen zorra (Soreasuko eraikinarena eta beste

zenbait) 890.000 eurotan arindu da. 2007an 10 milioi eurotako zor bizia zeukan, 2013an erdira jaitsiko da. Bestalde, diputazioari 2009an utzitako zorra ere (600.000 eurokoa) kitatu da. Ondorioz, udalaren osasun ekonomikoa ona dela esan dezakegu.

- Arloetako aurrekontua sakon aztertu da. Arloetako dinamikak baldintzatu ez dituzten alferrikako gastuak ekidin dira. Oro har %5 inguruko jaitsiera eman da honela.
- Hirigintzan bi irizpide nagusiri jarraitu zaie. Obra handien aurrean, herriarren eguneroko beharrari lotutako (Denon Artean-eko eskaerak) obra txikiei eman zaie garrantzia. Bestalde, beste instituzioetatik ematen diren diru-laguntzak lortu dira hainbat obra martxan jarri ahal izateko.

2012an egindako optimizazio planari esker, zerbitzu publikoak indartu eta Azpeitirako beharrezko ziren proiektuak aurrera atera dira. Jarraian, ikus ditzakezu garrantzitsuenak.



PLAN URBANISTIKOA

Planaren garrantzia eta aurrekariak ikusita benetan behingoz sortutako liskarrak gaindituz Azpeitia norabide egokian jartzeko balioko du

Herri batek duen plangintza estrategiko sendoena etorkizuneko herria irudikatzen duen Hiri Antolamendurako Plan Orokorra da. Dokumentu honen garrantziak ulertarazten du esparru eta eremu askotan hainbat interes arteko gatazkak sortzea.

Orain arteko Azpeitiko Hiri planeamendua, hain zuzen 2007. urtean Udalak onartutako arauak, 2011ko apirilean Auzitegi Gorenak indarrrik gabe utzi zituen, aurrez Euskadiko Auzitegi Nagusiak hartutako erabakia berretsiaz. Hala ere Udalak 2012ko uztailaren 5ean egindako Udalbatzak aho batez onartu zuen Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berriari hasierako onarpena ematea eta jendaurrean jarri zuen herritarrek alegazioak aurkezteko. Prozesu luzea eta neketsua izan da baina Planaren garrantzia eta aurrekariak ikusita benetan behingoz sortutako liskarrak gaindituz Azpeitia norabide egokian jartzeko balioko du.

“Udalak 2012ko uztailaren 5ean egindako Udalbatzak aho batez onartu zuen Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berriari hasierako onarpena ematea ”

Planak Azpeitian urteotan planteatu diren arazo nagusiak bideratzen ditu, eta bizi dugun egoerari bereziki moldatzen zaio. Horrela: etxebizitza sozialen aldeko apustua egiten da, ingurumenaren zainketa, lur industrialak aurreikusi ...

Une honetan plana behin betiko onartzeko azken pausuak ematen ari da Udalak, herritarrek planteatutako alegazioak erantzun eta beharrezko diren neurri teknikoak bideratuaz.

AZARAUTZA:

Udalak konpromisoa hartu zuen eta horrela garatu du Azarautza eremuko plan berezia (2012ko abenduan aho batez onartu zuen Udalbatzak) sortutako arazo judizialen aurrean beharrezkoak diren tresna urbanistikoak diseinatu eta onartzeko, herrian dituen interesak defendatzeko, une berean herritarrei babes juridikoa eskainiaz.



EKONOMIA



Udal Gobernuaren lehentasun nagusia lanpostu duinak sortzea da

Eraikuntza izan da azken urteotan Azpeitiko herriaren ekonomikoaren ardatza; horren adierazle dira eraikuntzara zuzendutako altzairutegiak, altzari eta eraikuntza enpresak.

2008. urtetik aurrera, krisi finantziero ekonomikoaren eragina pixkana handitzen joan da gure herrian eta egoera oso larria bilakatu da: hasierako aldi-baterako EREak kaleratzeak bihurtu dira, autonomo eta enpresa txikiak gaizki ari dira pasatzen, merkatariak BEZaren igoera sufritzen dute... Langabezi tasa gora eta gora doa. Gure herriko ekonomiaren sekretua industria da, horregatik, industriari zor diogu gure esfortzu nagusia, baina ez dago irtenbide magikorik; berrikuntza, ikerketa, garapena, kudeaketa hobea, dibertsifikazioa, esportazioa, merkatu berriak, teknologia berriak, ekintzailetasuna... bultzatu behar dira.

2012 AZAROKO LANGABEZIAREN DATUAK		
	Langabetu kopurua	Langabezi tasa
AZPEITIA	946	13,57%
GIPUZKOA	48.173	13,72%
EAE	171.066	15,77%

Gauzak horrela, enpleguaren aldeko apustuaren oinarriak ezarri dira 2012 urtean:

I.- BAILARA.

Enpleguaren buruzko eskualde mailako azterketa egin da. Diagnostikoak egoera oso gogorra dela erakusten du. Langabezia goraka joan da eta hurrengo hilabeteetan ere horrela jarraituko du. Udal Gobernuaren lehentasun nagusia lanpostu duinak sortzea da. "Beste edozein gaien

aurretik hau dago", adierazi dute arduradunek.

Estrategiak eta ekintzak ere antolatu dira. Honela, enplegu egoeraren diagnostikoa etengabe berritzen joango da, hileroko datuak eskuratuz. Bestetik berri, langabeziaren kontrako bitartekoak garatzea bultzatzen da, ekintzaileen lagunduz eta eskualdeko biziberritze sozio-ekonomikoa gauzatzeko ikerketa, garapena eta teknologia berriak indartuz. Azkenik, ekintza konketuak lagunduko dira.

2.- FORMAZIOA.

Formazioaren aldeko apustua hiru ataletan banatu da:

- Balarako Lanbide Heziketaren inguruko azterketa egin da eta eredu berria bultzatzeko apustua egiten da. Hau estrategikotzat jotzen da.
- Enpresetako langileei zuzendutako formazio espezializatua eman ku-deaketa, abilitate berriak, ezagutza berriak... ikas ditzaten.
- Langabetuei formazio espezifikoa ematen die Azpeitiko Udalak. Hiru ikastaro izan dira nagusiak: Prestatu lanean programa, Etxez etxeko eta geriatria laguntzaile ikastaroa eta Bir-gizarteratze tailerra.

3.- BERRIKUNTZA.

Gipuzkoako Foru Aldunditik 100.000 euro bideratu dira Loiola Berrikuntza Fundaziora eta honek, honako proiektu hauek jarri ditu abian:

- Agripir. Proiektu honen bidez koopera-zio indartsu bat ezarri nahi da mugaz bestaldeko industria lan egiten duten entitateen artean, eta horrez gain aukera berriak hauteman nahi dira, balio erantsiko aktibitate berriak sortuz.

- Doktoreen bilera. Urola Erdiko arlo Zientifiko/Sozioekonomikoetako Doktoreak eta berrikuntza agenteen arteko lankidetzaz aztertzea helburu izanik.
- Dibertsifikazioa. Balarako enpresa, instituzio eta ikastetxeetako 27 ordezkariak dibertsifikazio estrategia baten inguruko kontzeptu desberdinez hausnartu zuten.
- Berrikuntza proiektuak. Berrikuntza bilatzen duten proiektuak bultzatu eta sustatu ditu.

4.- TURISMOA.

Garapen ekonomikoaren eremu berria da. Inguruko herrietako bizilagunak zein atzerritarrek Azpeitira erakartzea bilatzen da eta horretarako hainbat pauso eman dira; eskualdeko Udalen arteko turismoa koordinatu da eta azterketak egin dira, ekimen desberdinak abian jarri dira; 5 geltoki historian, Pintxo tour... Gainera, herriak dituen baliabide eta altxor turistikoak (Loiolako turismo bulegoa, Bakardadearen Kapera edota Tren Museoa) ezagutarazteko esfortzu berezia egin da. Egindako lanak fruituak eman ditu eta inoizko datu positiboak lortu dira; 5 geltoki historian ekimenaren baitan bonoen salmenta %48 igo da eta 2012ko Aste Santuan Loiolako turismo

bulegoak % 27 bisitari gehiago izan zituen. Gainera, nabarmentzekoa da 2012 urtean Gipuzkoan bisitari gehien jaso dituzten lehenbiziko 6 postuetatik, bi Azpeitikoak direla; Loiolako Basilika eta Burdinbidearen Euskal Museoa hain zuzen ere.

5.- BASERRITARRAK.

Bertako produktuak kontsumitzeko helburu nagusia izanik, elkarlana sustatu da, hobariak eman eta Urkometik laguntzak eskuratu dira eta hitzarmenak sinatu dira. Besteak beste, Uztaro haurreskolako jangelan bertako produktuak izateko hitzarmena sinatu zuten Azpeitiko Udalak, Uztaro haurreskolako guraso elkarteak, *baserritik.com* baserritarren elkarteak eta Urkome, Urola Kostako Landa Garapen Elkarteak.

6.- MERKATARITZA.

Merkatariekin harreman estutu du Udalak. Saltokiak garai zailak bizi dituzte eta horregatik, laguntzak bideratu dira, hobariak eskaini dira merkatariei, stock salmenta sustatu da eta Gabonetan, azpeitiarrek herrian kontsumitu zezaten, erakusleho lehiaketa antolatu du lehenbizikoz.

GIZARTE ZERBITZUAK



2012 urtean eman diren Udal laguntzak %20an igo dira

Gizarte Zerbitzuak sailak laguntza ugari eskaintzen ditu, adibidez, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eta oinarritzko errenta. Hipotekak, ura, zaborra, argia, alkileria, jangela edo oinarritzko beharrak ordaintzen laguntzen da.

2011 urtearekin alderatuz gero, 2012 urtean eman diren laguntzak %20an igo dira eta tasen inguruko laguntzetan berriz, %87ko igoera izan da.

“Udalak gogor salatu nahi du kasua eta etxekalartzeen aurkako protokolo berezia lantzen ari da”

DESJABETZEA. Azpeitiko familia bat, bi adin txikiko umerekin, kalean uztea bortizkeria onartezina da. Abenduaren hasieran gertatu zen gure herrian.

Desjabetzearen aurrean zegoen herriko familiak, bankuarekin negoziatu behar izan zuen gurasoen etxea ez kentzeko eta trukean, beraien bizitokia desjabetzea onartu behar izan zuen. Udalarekin harremanetan jarri ondoren, etxerik gabe geratu zen familiari Nuarben etxe bat utzi dio alokairuan.

Azpeitiko Udalak gogor salatu nahi du kasua eta etxe kaleratzeen aurkako protokolo berezi bat lantzen ari da orain.



INGURUMENA

Birziklapen tasa handienaren bila

HONDAKINAK

Maiatzean herritarren parte-hartzearekin egindako batzarren bidez eman zitzaion hasiera hondakinen gaiaren lanketari. Bertan, hondakinekin arazoa azaldu eta egin nahi diren urratsen inguruan aritu ginen. Hondakinak murriztu berrerabili eta birziklatzea bultzatzeko konpromisoa hartu zuen Udalak. Bide horretan, sentsibilizazio kanpaina desberdinak burutu ditu. Udalbatzan, birziklapen tasa %??ra iristeko helburua onartu eta bilketa sistema hobetzeko aukera desberdinak aztertzeke konpromisoa hartu zen. Bide horretan, lortu diren bestelako emaitzak hauek dira:

- **5. edukiontzia: 2011an 149 familia gehiago eta 2012an 410.**
- **Organikoa bereizten dutenak 1220 familia (errealitatean hauen %52ak egiten du)**
- **Auzo konpostan 115 familia apuntatu dira.**



GARRAIO PUBLIKOA HOBETU

AZPEITIA-DONOSTIA LINEAN:

astelehenetik ostiralera bitartean 12 zerbitzu izatetik 20 zerbitzu izatera pasa da eta larunbatetan berriz, 6 zerbitzu izatetik 10 izatera. Igande eta jai egunetan lehen 2 zerbitzu zeuden eta orain 6. Uztaila eta abuztuan 6 zerbitzu izatetik, 15 izatera igaro da.

AZKOITIA-ZARAUZ LINEAN:

larunbata eta jai egunetan, lehen goizez ez zen zerbitzurik izaten, uztaila eta abuztuan bakarrik. 2012ko urtarritetik bi zerbitzu horiek urte guztiko asteburueta zabandu da.



ENERGIA

Energia aurrezteko Udal Gobernuaren asmo nagusietako bat da. Nahiz eta lan asko egin duen Udalak azken 10 urteetan, aurrera begira, egin beharreko asko dagoela uste du. Horrela, argiteria publikoan bonbilla txikiagoak ezarri dira eta argi fluxuan aldaketak egin dira energia eta gastua murrizteko. Gainera, material berria Udalak berak zuzenean erosten du eta neurri honekin, %60-50 bitarteko beharapena lortzen du.

Modu honetan, emaitza oso onak jasotzen ari da Udala, baina aurrerantzean ere gehiago egitea aurreikusten du; besteak beste, zaharkitzen ari diren instalakuntzak berritu, LED sistema ezartzen joan, telegestioa...



KULTURA

Kultur eskaintza zabala eta oparoa

Udaleko Kultura Sailak 2012an herri mailan kultur ekimena indartzearen bidean pausuak eman ditu, eta norabide horretan funtsezkoa izan da Kultur Mahaiarekin burutu den lankidetzak. Etorkizunean ere, aurrera egingo bada, nahitaezkoa izango da kultur taldeen bilgune den Mahaiaren eta Udalaren arteko koordinazioa eta elkarlana. Iazkoa jardunari gainbegiratuaz botaz gero, honako hauek ageri dira nabarmen:

- **Herriko egutegi orekatua.** 2012a urte emankorra izan da kultur ekimenen aldetik, hainbat diziplinetan egin den ahaleginari esker, eskaintza

oso zabala izan da. Egutegi orekatu baten bila lehen urratsak dira jada. Eta ildo horretan, ezinbesteko tresna bilakatu da Kultur Mahaiak kudeatzen duen Sanagustin Kulturgunea.

- **Sangustineko aforoa handitzea.** Herriko eskaintza kulturalari kalitateko bultzada emate aldera, Udalak Sanagustin Kulturguneko edukiera handitzeko obrak burutu ditu 2012an. Gehienezko edukitza 300 lagun izatetik, 550 lagunera igaro da.
- **Kultura bonoa.** Urte osorako bonoa da, eta pakete baten barruan hainbat

eskaintza egiten dira (sarrerak doan, beherapenak...), nahi duten herritarrek Azpeitian kulturako zenbait saio eta ekimen merkeago eskura ditzaten.

- **Zine proiektorea.** Zine emanaldien zerbitzua esleitu zuen Udalak 2012an eta horrela, 2013 urte amaiera bitartean, Urbieta Egaña S.L. enpresak kudeatuko ditu Soreasu antzokiko zine emanaldiak. Gainera, orain arteko proiektore analogikoa ordezkatu duen proiektore digitalari esker, zine estreinaldiak emateko aukera eskaintzen da.



FESTAK

Aurrekontua murriztuta, parte-hartzea oinarri

DIRU GUTXIAGO

Jaien antolaketan herritarren parte-hartzea izan da oinarria. Honela, festak antolatzeko aurrekontua murriztuta ere, egitarau zabala eta festa ederrak antolatzeko gai izan da Azpeitikoa herria. 2011n baino 60.000 euro gutxiago gastatu dira 2012an festak antolatzen.

FESTATAKO MAHAIA.

Herriko jai nagusiei dagokionean, festetako mahaitik egin da kudeaketa. Mahaiaren osaketa, prestatu nahi zen festaren beharretara egokitu da. Festek hainbat protagonista izan dituzte; Gaztetxeak, Baigerakoak, elkarte gastronomikoetakoak, ikastetxeak, Zezen Beltz, musika banda eta musika eskola...

AUZOETAKO FESTAK

Auzotarren inplikazioa eta lanari esker auzoetako festak indarberritu dira. Zenbait auzotan, Sanjuandegin eta Urrestillan esaterako, sekulako indarra hartu dute. Udalak, auzoetako festa batzordeekin harreman zuzena mantendu du. Udalaren baliabideak euren esku ipini ditu, ahal izan den neurrian lagunduz.



PAREKIDETASUNA



Indarkeriaren biktimei arreta indartzen duen protokoloa garatu da

PROTOKOLOA:

Emakumeen kontrako indarkeriaren protokoloa egin du Udalak. Biktimei arreta ematen dieten erakundeen arteko koordinazioa eta elkarlana indartzeko asmoarekin sortutako tresna da. Azpeitiko Udaleko hiru sail (Gizarte Zerbitzuak, Udaltzaingoa eta Parekidetasuna), Lanbide, Ertzaintza, Osakidetza eta herriko lau ikastetxeak (Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai, Urola Ikastola BHI, Iraurgi Ikastetxea eta Azpeitiko Ikastola Ikasberri) dira emakumeen kontrako indarkeria kasuei aurre egiteko protokoloa landu eta sinatu duten erakundeak.

HEZKIDETZA PROIEKTUA:

Irakasle, ikasle eta gurasoei formazioa eta aholkularitza zerbitzua eskaintzen zaizkie. Proiektu honen helburuak, batetik parekidetasuna eta bestea sexu-hezkuntza dira. Urte bakoitzean lantzen den gaiak ikasleen premietara egokitzen dira.

EMAKUMETXOKOA:

Emakumearen Txokoaren helburua herriko parekidetasunaren aldeko ekimen, aldarri eta taldeen topalekua izatea da. Emakumeen ahalduntze prozesua bultzatzeko tresnak eskaintzen dituen gunea. Bertan, bizitzako esparru askotan emakumearen parte-hartzea sustatzeko ekimenak, emakumeen

papera eta lana ikustarazteko ekimenak, edota, sexu edo sexualitate arazoak tarteko baztertzen dituzten sektoreekin lotutako ekimenak antolatzen dira. Hona hemen emakume txokoan eskaintzen diren tailer eta zerbitzuak:

- **JABETZE ESKOLAK:** Jabetze Eskola emakumeen topaleku eta prestakuntzarako eta hausnarketarako gunea da. Emakumeen parte-hartze soziopolitiko indartzea da helburua eta horretarako, hainbat gai lantzeko bideak eskaintzen ditu ikastaroen eta tailerren bidez.
- **SEXU AHOULKULARITZA:** Emakume txokoan hilean behin zabaltzen da aholkularitza zerbitzua. Momentuz

banakako arreta ematen da baina kontsultak eta galderak egiteko ere interneteko aholkularitza zerbitzua erabili daiteke.

- **BIDEZ BIDEZ:** Atzerrian egindako ikasketen homologazioaren inguruko aholkularitza zerbitzua da. Hamabostean behin, asteazkenetan, 16:30etik 20:00etara egoten dira emakume txokoan.
- **EMAKUMEEN KULTURARTEKO GELA:** Euskara ikasteko aukera emateaz gain, euren artean harremanak izateko eta elkarren berri jakiteko espazioa da. Klaseak asteazkenetan 16:00etatik 17:30era eta ostegunetan 18:00etatik 19:00etara izaten dira.



KIROLAK



Kirol modalitate guztien alde lanean

KIROLDEGIA

Tarteko solairu bat atera da, espazio gehiago irabaziz. Tarteko solairu hau, spinning egiten den gunearen goialdean kokatu da, sarrera azken solairutik duelarik. Judo eta karate klubak ezarri dira espazio berri honetan.

IGERILEKUA

Igerilekuko azken solairuan egokitzepekin egin dira, eta gimnasioko kardiobaskular erremintak jarri dira bertan.

Igerilekuan zeuden hezetasun arazoak konpondu dira.

AIRE LIBREAN

Herriko gazte talde batek egindako eskaerari erantzuna emanez, Garmendipe futbol zelaiko harmaila atzean bizikletentzako eremua egokitu da, saltoak eta lasterketak egin ahal izateko.



HERRIKO IKASTETXEAREN ARTEKO HARREMANAK SUSPERTU

2012 hasieran bilera bat egin zen herriko ikastetxe guztiekin urteko aurrekontuak eta plangintza azalduz. Ikastetxe bakoitzarekin urte hasieran eta bukaeran bilera egin zen, eta unez uneko beharren arabera jarraipen zuzena eman zaio. Urola Ikastola, Karmelo Ikastola eta Iraurgi ikastetxea, Musika eskola

eta Uztaroko Batzar Goren eta Eskola kontseiluetan parte-hartze zuzena izan du Udal zinegotziak.

AZPEITIKO ONDAREA UNITATE DIDAKTIKOETAN PROIEKTUA

Proiektu hau Hik Hasi elkartearen gidaritzapean ari da garatzen, hauekin lankidetzan herriko ikastetxeaz gain hainbat herriko taldeek ere laguntza eman dute: arkeologi taldeak, argazki taldea, Ingurumen Museoko teknikariak, herritarrak... 2013-14 ikasturte haserako I. unitatea prest egongo da.

HERRIKO EKIMEN KULTURALAK BULTZATU

Hezkuntza eta Festa komisiok, herriko ikastetxeekin elkarlanean, Azpeitiko zenbait ohitura zahar eta festa bultzatu du. Horrela, Olentzeroren irudia herrian indartzeko, abenduak 24ko ekintza bateratua bultzatu da. Horrez gain aipatzekoak dira ere: Erregeen Kabalgata, Sansebastianetako Danborrada eta Inauteriak.


AGENDA 21

Agenda 21 proiektuaren aurtengo gai nagusia hondakinak izan da. Proiektu honen barruan, beste ekimen batzuekin batera, aurtun gurasoen partaidetza eta kanpo eta barne komunikazioa suspertu nahi izan da, eta horretarako baliabide berezia jarri da, teknikari bat. Aurrezte kanpaina ere bultzatu da, horrela, ur eta argi indarrean gehiegizko gastua saihesteko, kontzientziazio bultzatze asmoz, pegatinak diseinatu dira eta leku publikoetan jarri.

SAIL DESBERDINETATIK BULTZATZEN DIREN PROIEKTUEI ELKARLANA

Udaleko zenbait sailetatik eskoletarako hainbat proiektu bideratzen dira urtero (besteak beste, drogamenpekotasuna, sexu-heziketa, kirol eskolarra ...). Udaletxeko sail hauekin harreman zuzena du Hezkuntzak. Azpimarratu behar da Udal sailen arteko koordinazioa eta lankidetzak hobetzeki garrantzia ematen zaiola.

EUSKARA



Azpeitiko hutsune txikiak euskalduntzen

GU ERE BERTSOLARI

Hezkuntza batzordeak, Euskararekin elkarlanean, ikastetxeetan bertsoa suspertzeko programa hau bultzatzen du.

LOIOLAKO LIBURUTEGIA IKASLEKU

Gazteentzat, unibertsitate eta goi mailako ikasketak egiten ari direnentzat bereziki, Loiolako Liburutegian gune bat prestatu da azterketa garaietarako ikasleek ikas dezaten. Abendu erditik hasi eta urtarilaren 20a bitarteko larunbat eta igandeetan zabalik izaten da. Herriko ikasleen eskariari erantzuna emateko lotu dute akordioa Udalak eta Loiolako Erretoretzak.

ZINEMA EUSKARAZ

Tinko programaren barruan, Azpeitiko ikastetxeei aukera ematen zaie Soreasu aretoan filmak euskaraz ikusteko.

EUSKARAZ BIZI EGITASMOA

Hezkuntza batzordeak, Euskara komisiorekin elkarlanean, euskara bultzatzeko Euskaraz bizi egitasmoa sustatzen du. Euskaraz bizi nahi dut... leloa ere hainbat ekimenetan zabaldu da.

HITANOAK

Udala eta ikastetxe desberdinen lankidetzan, herriko haurren artean hitanoa lantzeko programa garatu da.

ETORKIZUN

Haurrei zuzendutako programa da, herrira iristen diren etorkinen integratzeko oinarritzakoa. Ikasketa orduetatik kanpo, laguntza ematen zaie euskaraz ikasi eta harremanak sakontzeko oinarriak ipiniz.

MERKATARITZA ETA LAN MUNDUA EUSKALDUNTZEKO PROGRAMA.

Merkataritzari dagokionez, Udal diru-laguntza handitu da. Honela lehendik hasiak zeuden merkatariek diru gutxiago ordaindu dute euskalduntze programa garatzeko.

HERRI BARRUKO AUZUNEAK



ALDE ZAHARRA

- 2012an Alde Zaharreko mahaia eratu da.
- Alde Zaharreko lurraren garbiketa egin eta argiztapena hobetu da.
- Frontoi Txikian argia pizteko sistema ezarri da.
- Perez Arregi plazan zelaia eta espaloi berria egin dira. Horrekin batera, bidea berritu da eta aparkalekuak ordenatu dira.
- Perez Arregiko zubian trafikoaren zentzua aldatu da, 2 zentzutan ipiniz.
- Alde Zaharra oinezkotezko lehen pausoa eman da. Igandetan herriko plazan ezin da aparkatu.
- Soreasuko aparkalekuan, 5 orduz aparkatu daiteke dohainik. Alde Zaharreko merkatarien eta Soreasuko bizilagunen Eskareri erantzunez.
- Bustunzuriko Errebalaren atzeko kalean, ibaiaren ondoan dagoen zelaian aparkalekuak egiteko hitzarmena lortu du Udalak. Haurrei zuzendutako programa da, etorkinen integratziorako oinarritzkoa. Ikasketa orduetatik kanpo, laguntza ematen zaie euskaraz ikasi eta harremanak sakontzeko oinarriak ipiniz.





GARMENDI – GARATE ANAIK – PERDILEGI

- Loiolatik datorren bidegorria, Lasaora doan bidegorriarekin eta polikiroldegiarekin lotzeko obrak amaitzeaz dira.
- Egoera oso kaxkarrean zegoen Garmendiko aldapako espaloia berritu da eta aparkalekuak gehitu dira.
- Oinezkoentzako bidea egokitu da beheko errotondatik kiroldegira.
- Pablo VI-tik Garate Anaiak auzorako igogailua 2013 hasieran egingo da.



PABLO VI – HARTZUBI – JOSE DE ARTETXE

- Ildefonso Gurrutxaga kalean trafikoa 2 zentzutuan ipini da auzoko trafiko antolamendua hobetu asmoz.
- Jose de Artetxe aurreko atarian, kapa fin bat bota da zuloak tapatu eta euri-urek sortutako arazoak ekiditeko.



ETXEALAI – SANTUTXO – ARANA

- Izarraitz frontoiko igogailua egokitu da auzoko irisgarritasun arazoa konpontzeko.
- Etxe Alai eta Santutxo artean, aparkalekuak gehitu eta espaloia berritu da.



HERRI BARRUKO AUZUNEAK



SOREASU - MADALENA

- Oinezkoek zuten gabeziari aurre egiteko, 11 eta 12 zenbakidun eraikinetatik hasi, eta 5, 4 eta 3 zenbakietara bitartean espaloi-arrapala berria egin da.
- Aparkaleku berriak egokitu eta inguruak txukundu dira.
- Auzoko aparkaleku arazoak arintzeko, 5 orduz aparkatu daiteke dohainik Soreasu lurpeko aparkalekuan.



JUAN XXIII

- Loiolatik datorren bidegorria, Lasaora doan bidegorriarekin lotzeko obrak hasi dira dagoeneko.
- Argiztapena hobetuko da.





SANJUANDEGI – ETXEBELTZ

- Jose Antonio Agirre plaza eraberritu da, garajeetara ura sartzen zelako.
- Sanjuandegitik Etxebeltz auzorako zubia egiteko, Arau Ordenatzaile berriak indarrean egotea beharrezkoa da eta udaberrian onartzea aurreikusten du Udalak.



LANDETA

- Landetako biribilgunean, kiroldegi aldeko espaloia eta Lau Bide jatetxearen aldekoa lotzen dituen pasabidean, semaforoa jarri da bizilagunek eskatuta.



LOIOLABIDE – AUZARAZA

- Loiolabidetik Auzaraza auzora zeharkatzeko errepidean, ibilgailuek abiadura leuntzeko koskadun zebrabidea jarri eta horma zati bat kendu da autoak hobeto ikusteko.



KANPOKO AUZOAK

Udala eta auzoetako bizilagunen harreman iraunkorra bermatu da auzo alkateen eskutik

I.- AUZO ALKATEAK IZENDATU DIRA.

Herriz kanpoko auzoetako bizilagunek, urruti sumatu dute sarri Udala. Orain, Auzoetako batzorde eta auzo alkateen ekarpenarekin, Udala eta auzoetako bizilagunen harreman iraunkorra bermatu da. Honela, auzotarrek dituzten beharrak jaso eta behar horiei erantzuteko bidea ipini da, edozein proiektu gauzatzekoan bizilagunen iritzi eta ekarpenak kontuan hartzeko. Eta auzo alkateen lanari esker bide horretan pauso garrantzitsu bezain eraginkorra emango da.



Mari Jose Azkue
Lasao



Xabier Mujika
Matxinbenta



Anjel Mari Oiarzabal
Urrestilla



Rosa Buldain
Aratz Erreka



Jabier Gurrutxaga
Nuarbe





2.-AUZO GUZTIETAN HARI DA UDALA BERTAKO ESKARI GARRANTZITSUENAK LANTZEN:

- Urrestilla: Plaza eta haur parkea berritzeko, Eusko Jaurlaritzak ez du Udalak eskatutako diru laguntza eman. Beraz lan hauek, diru laguntzarik gabe egin beharko dira 2013 urtean.
- Aratz Erreka: Urrestillan bezala, auzoko plaza berritzeko eta haur parkea jartzeko, Eusko Jaurlaritzak ez du Udalak eskatutako diru laguntza eman. Gainera, Aratz Errekaren kasuan, Gotzaindegia erantzunaren zain jarraitzen du Udalak beraien jabetzako baratzak erabili ahal izateko.
- Lasao: Auzo-lokala egokitze moduko eraikin bakarra

Gotzaindegia da. Azpeitia eta Zestoaren artean 50.000 euro inguru gastatu beharko direnez egokitze lanetan, gotzaindegia lokala zenbat urterako uzteko prest dagoen jakin beharra dago erabakia hartzeko. Gotzaindegia erantzunaren zain gaude.

- Bestalde oinezkoentzako eremua egokitzeko eta errepideko bidegurutzea aldatzeko proiektua egin du udalak 2012an. Orain, proiektu honek, Eusko Trenbide Sarearen eta Diputazioko errepide sailaren oniritzia behar du aurrera egin ahal izateko.
- Matxinbenta: Auzotarrekin haur parkearen kokaleku egokia aztertu ondoren, hauek prest agertu dira auzolanean prestatzeko parkea kokatuko den gunea. Gune hau prestatzean

jarriko da parkea. Udaberrirako jartzea aurreikusten da.

- Nuarbe: beharra zuen auzoak eta pilotalekua egin da. Bestalde, urtegiko pasealekuan zegoen lur-jausia ere konpondu da aurtengoan. Bide zati handiagoa erortzeko arrisku nabarmena ikusita (inguruko pitzadurak handitzen joan dira 2012an zehar), konponketa lanak burutzea erabaki da. Lanek 160.000 euroko kostua dute eta egin ezean, kostua asko handitzeko arriskua zegoen. Obra udaberrian amaituko da.
- Bestalde, Nuarben Azpeitia Lantzenek eginiko 7 etxe hutsik zeuden, ez ziren saltzen. Beraz, Udalak etxebizitza hauek alokairuan hartzeko aukera gehitu du 2012an. Honi esker, jadanik 7 etxetatik 6 alokatu dira.

2013ko AUZOETAKO BATZARREN EGITARAUA

Urtarrilak 14, astelehena

Matxinbenta (Auzoko tabernan)
Landeta (Baigera I)

Urtarrilak 15, asteartea

Garmendi-Pablo VI-Artzubia
(Betharrandarren aretoan)
Nuarbe (Auzoko elkartean)

Urtarrilak 16, asteazkena

Urrestilla (Jubilatuen lokalean)

Urtarrilak 22, asteartea

Soreasu
Juan XXIII
Damaso
(Soreasu antzokian)

Urtarrilak 23, asteazkena

Alde Zaharra (Baigera I)
Lasao (Auzoko lokalean)

Urtarrilak 24, osteguna

Aratz erreka (Auzoko tabernan)
Loiola bide (Betharrandarren aretoan)

Urtarrilak 25, ostirala

Oñatz (Baigera I)

Urtarrilak 28, astelehena

Loiola (Loiolatxo elkartean)
Arana-Etxe-alai-Santutxo (Baigera I)

Urtarrilak 29, asteartea

Sanjuandegi (Betharrandarren aretoan)

Bilerak 19:00etan izango dira

azpeitia
denon artean